

**2009KO AZAROAREN 27KO UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO
BATZARRALDIAREN AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita zazpia

HILABETEA: Azaroa

URTEA: Bi mila eta bederatzi.

HASIERAKO ORDUA: Goizeko bederatziak

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: Patxi Plazaola Muguruza

BILDUAK:

- Aitor Aldasoro Iturbe
- Iñigo Arrese Artabe
- Malu Valles Fernandez
- Arantza Aseginolaza Azkargorta
- Arantza Gibelalde Iñurritegi
- Fernando Boada Gonzalez
- Alfonso Segade Gonzalez
- M^a Pilar Vispo Chamosa
- Ana María Crespo Blanco
- Manuela Uranga Seguro
- Jon Kortaberria Lasa
- Josi Insausti Mujika
- Begoña Lasa Royuela
- Julene Hidalgo Pérez
- Julio Herreros Serna

ETORRI GABEA: Joan Martin Aldaregia Etxebarria

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

Bileran, Lurdes Alegria Lasa Kontuhartzaileak ere parte hartu du.

1.- AURREKO AKTA. 2009ko urriaren 30ean, egindako ohiko batzarraldiaren aktaren berri eman ondoren, bildutakoek ondorengo esan dute:

Julio Herreros jaunak (PP) adierazi du ez duela akta onartuko bertan legez kanpo dagoen plataformak parte hartu duelako.

Beste guztiek aktarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin akta onartu da.

2.- EGITASMO PARTZIALA. INDAR, 7. Sektoreko Egitasmo Partzialaren aldaketari behin betiko onespina ematea.

Aitor Aldasoro, hirigintza batzordeburuak (EAJ), ondorengo proposamenaren berri eman du:

“AURREKARIAK

2009ko urriaren 6an Alkatetzaren Ebazpenaren bidez, hasierako onespina eman zitzaion, INDAR, 7. Sektoreko Egitasmo Partzialari.

Espedientea jendaurrean jarri zen hogeitaz laneguneko epean, 2009ko urriaren 7an eta 9an, Berrian, Diario Vascon, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean hurrenez hurren, iragarkiak argitaratuz.

Halaber, Sektoreko jabeen banakako jakinarazpena egin zitzaion.

Epe horretan, ez dira alegaziorik aurkeztu.

Aldi berean, dokumentua, Bide Azpiegiturako Departamentura bidali zen eta honek 2009ko urriaren 15eko datakin, aldeko txostena eman zuen.

Horren ondorioz, hirigintza batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

Lehenik. INDAR 7. Sektoreko Egitasmo Partzialaren aldaketari behin betiko onespina ematea

Bigarren. Aipatutako Egitasmo Partzialaren aldaketa, Gipuzkoako Foru Aldundira igortzea, foru-aldundiko erregistroan sartzeko.

Hirugarren. Behin betiko erabakiaren berri probintzian gehien zirkulatzen duen egunkariak argitaratzea eta erabaki hau gehi Egitasmo Partzialaren ordenantzak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

3.- KREDITU ALDAKETAK. Gehigarri kreditu modalitatean kreditu-aldaketa onartzea.

Alkateak, proposamenaren berri eman du:

GAIA.- Kreditu Aldaketa. 15. Kreditu Gehigarrien Espedientea.

Honekin batera doan proposamenean zerrendatutako gastuak egin beharra izanik eta hauek finantzatzeko aurrekontu kreditu nahikoa ez dagoela kontutan hartuz, Alkatetza honek Udalbatzari ondorengo Akordio Proposamena egiten dio:

1.- 15. Kreditu gehikuntzen bidez 456.200,00 euroko zenbatekoaz eta eranskinean zehazten den moduan finantzatzen diren kreditu aldaketak hasiera batean onartzea.

2.- Aipatutako akordioa jendaurrean jartzea, 15 eguneko epean bidezkoak diren alegazioak aurkeztu ahal izateko. Alegaziorik jasoko ez balitz, behin-betirako onartutzat emango da.

GASTUAK ETA KREDITU ALDAKETA EGITEKO PROPOSAMENA

Zerrendatutako gastuak gauzatzea premiazkoa denez -horien gauzatzea ezin baita atzeratu-, zerbitzu horiek egiteko erritmoa eteteak edo, hala badagokio, horien kudeaketa mailak behera egiteak kalte handiak sortuko bailituzke, eta hauek finantzatzeko aurrekontu kredituak nahikoak ez direla edo krediturik ez dagoela kontuan hartuz, proposamen hau egin da indarrean dagoen aurrekontu egiturari egokituta.

Aurrekontuko kontu saila/ Partida Presupuestaria	Kontzeptua / Concepto	Kredituak / Créditos		
		Egunoak / Actuales	Aldaketak / Modificaciones	Behin betikoak / Definitivos
1.4100.211.321.10.01	EPA: funtzionamendu gastuak / Gastos funcionamiento EPA	5.751,84	3.600,00	9.351,84
1.9000.221.121.10.01	Energi elektrikoa: Udalaren etxebizitzak/ Energía eléctrica viviendas y locales	3.000,00	10.000,00	13.000,00

1.9000.227.121.00.01	Garbiketa zerbitzu orokorrak / Limpieza Servicios generales	30.000,00	32.000,00	62.000,00
	Eraikinen iraupena: etxebizitza aretoak /			
1.9000.211.121.10.01	Conserv. edificios: Viviendas y locales	25.000,00	6.700,00	31.700,00
	Eraikinen iraupena: zerbitzu orokorrak /			
1.9000.211.121.00.01	Conserv. edificios: Servicios Generales	27.000,00	6.000,00	33.000,00
	Instalazioen iraupena: herriko bideak /			
1.9000.210.449.10.01	Conserv. instalac.: viales públicos	60.000,00	20.000,00	80.000,00
	Instalazioen iraupena: zerbitzuak /			
1.9000.210.449.10.02	Conservación instalaciones: servicios	26.000,00	10.000,00	36.000,00
	Instalazioen iraupena: argiteri publikoa /			
1.9000.212.433.10.01	Conserv. Instalac.: alumbrado público	55.000,00	35.000,00	90.000,00
	Pintura erosketa / Compra de pintura	2.000,00	2.000,00	4.000,00
1.9000.210.511.20.02	Eraikinen iraupena: Hilerrria / Conserv. Edificios: Cementerio	9.500,00	6.000,00	15.500,00
1.9000.211.443.10.01	Aldarteko laboralak: Enplegu sustapena /	28.041,81	54.040,00	82.081,81
	Personal eventual: Fomento de empleo			
1.1000.141.322.10.01	Gizarte Segurantzaz: Enplegu sustapena /	9.054,70	20.860,00	29.914,70
	Seguridad Social: Fomento de empleo			
1.1000.160.322.10.01	Euskarlagi eta EPArako lokalak/ Locales	0,00	250.000,00	250.000,00
1.1000.622.422.10.01	para EPA y Euskarlagi			
GUZTIRA / TOTAL		280.348,35	456.200,00	736.548,35

KREDITU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA

Sarrerren kontzeptuak edota gastuen kontu-sailak / Conceptos de Ingresos	Baliabidearen kontzeptua / Concepto del recurso	Sarrera handiagoak edota gastuetako bajak / Mayores
---	---	--

y/o partidas de Gastos		Ingresos y/o Bajas en Gastos
1.9000.227.442.20.01	Limpieza viaria / Kale garbiketa	24.000,00
	Sagastigutia parkearen mantenim./	5.000,00
1.9000.227.434.10.02	Mantenim. Parque Sagastigutia	
1.9000.622.443.10.02.2008	Hilerriko plakak / Placas cementerio	10.722,00
	Lorategi eta parkeak/	56.578,00
1.9000.227.434.10.12	Parques y jardines	
1.9000.227.413.30.01	Kaleko komun en garbiketa / Limpieza WC públicos	2.000,00
	Fatxaden garbiketa / Limpieza fachadas	
1.9000.211.442.20.01	Udaletxeko sarbideen kontrol sist./ Sist.	18.000,00
1.9000.643.121.00.01	Control accesos Ayuntamiento	6.000,00
	Zerbitzu orokor. eraik. seinalizazioa /	9.000,00
1.9000.625.121.00.99	Señalizac. Edificio Servicios Generales	
1.1000.680.431.10.01	Ondare ondasun.: lurzorua en erosketa/ Bienes patrimoniales: adquisición suelo	50.000,00
1.1000.682.129.10.01	Ondare ondasunak: lokalen erosketa / Bienes patrimoniales: compra locales	50.000,00
2.0000.870.000.00.01	Diruzaintzako gerak.: kreditu gehigarriak/ Remanente tesoreria: créditos adicionales	224.900,00
GASTUEN GEHIKUNTZAK GUZTIRA / TOTAL IGUAL A LOS INCREMENTOS DE GASTOS		456.200,00

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek iritzi hauek azaldu ditzute:

PP, EB eta ALKARBIDEko zinegotziek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Fernando Boada jaunak (PSE-EE/PSOE): “Sabemos que un presupuesto es presuponer que se va a gastar, pero no siempre se puede

acertar, y así durante el año ha habido algunas modificaciones de aspectos que no estaban previstos en el presupuesto y se han tenido que presentar como modificación de créditos y han tenido el visto bueno del partido socialista. Hoy, se nos presenta un grupo de partidas importantes, en el que se hace una modificación en función del gasto previsto y del gasto realizado. Vemos una incongruencia porque, por ejemplo, en conservación de viviendas y locales, teníamos 25.000 € y el gasto final va a ser de 31.700 € y para el presupuesto del año que viene tenemos 22.500 €, incluso menos de lo que teníamos este año. En servicios generales teníamos 27.000, hemos gastado 33.000 y sin embargo, vamos a presupuestar 24.000. En conservación de viales públicos teníamos 60.000 y hemos gastado 80.000 y presupuestamos para el año que viene 45.000. En otras como fomento de empleo, es más difícil de concretar, teníamos 28.000, se va a gastar 82.000 y presupuestamos 59.000. Cuando se hace un presupuesto se hacen cuadrar las cuantas y después vamos modificando en función del gasto que vamos realizando. Lo que no parece lógico es que presupuestemos menos de lo que realmente este año hayamos gastado. Siendo esto un poco contradictorio todavía vemos peor el hecho de que para cubrir ciertos gastos se retraigan algunas partidas. Parque Sagastiguti (5.000 €), bueno aunque parece que ya no es tan importante porque no es tan utilizado como se pensaba, está deteriorado y un poco abandonado y es un sitio donde no merece la pena gastar. ¡Podría ser una interpretación!. Limpieza de fachadas: 18.000 . Total, como no las vamos a limpiar!. Nos las van a volver a pintar!. Había un acuerdo de limpiarlas, pero como no lo llevamos adelante, retraemos los 18.000 y los gastamos en incrementar otras partidas. Control de accesos al Ayuntamiento: 6.000 €. El partido socialista pide que se ponga el control de accesos, se acepta, se pone sobre papel, no lo ejecutamos y retraemos las cantidades para cubrir otros gastos. Adquisición de suelo. Total, entre que vamos a hacer las casas en un lado, vamos a hacer en otro, el suelo no lo hemos adquirido. No nos sirve mucho el que el Alcalde nos pida que planteemos ideas para reflejar en los presupuestos, para que una vez previstas, no se ejecuten y luego venga a pleno una modificación de créditos quitando esas partidas para cubrir otros gastos. Con todo esto, nosotros podíamos votar en contra de la modificación de créditos, no obstante, tal y como dijimos en el pleno anterior, somos cumplidores con los compromisos que nuestro partido ha suscrito y en esta medida y por la situación económica en la que nos encontramos y porque consideramos que los ciudadanos no tienen que pagar las consecuencias de la no buena gestión, no vamos a sancionar a los ciudadanos y por ello, nos vamos a abstener.”

Andoni Antxia, bizilagunak galdetu du ea urtean zehar zenbait kreditu aldaketa egin diren. Kontuhartzaileak erantzun dio, oraingoarekin hamabosgarrena dela.

Jarraian, talde sozialistari, bizilagun horrek esan dio, ez duela inolako esfortzurik egiten euskaraz mintzatzeko, baina erdaraz egin behar badu, gaztelaniaz behar bezala adierazteko eskatu dio, izan ere, “detraer” hitza erabili ordez, “retraer” erabili du.

Julio Herreros jaunak (PP): “Sra. Secretaria, le pido a Vd. que de fe pública de lo que está ocurriendo, que es la participación de la plataforma ilegalizada.

Los exbatasunos solo pueden ir a título personal, participar al final del Pleno, en el apartado de Ruegos y preguntas. Nunca pueden participar como Plataformas o Grupo Político.

Según el art. 88,3 del (ROF) Reglamento de Ordenación y Funcionamiento: el público asistente a las sesiones (Plenos) no podrá intervenir en estos, ni tampoco podrán permitirse manifestaciones de agrado o de desagrado, pudiendo el Presidente (Alcalde) proceder, en casos extremos, a la expulsión del asistente que por cualquier causa impida el normal desarrollo de la sesión. Sin perjuicio de ello, una vez levantada la sesión, la Corporación puede establecer un turno de consultas por el público asistente sobre temas concretos de interés municipal.

El art.228-2 del ROF (Reglamento de Ordenación y Funcionamiento):

Terminada la sesión del Pleno, el Alcalde puede establecer un turno de Ruegos y Preguntas por el público asistente sobre temas concretos de interés municipal. Corresponde al Alcalde ordenar y cerrar este asunto.

Sr. Alcalde, se esta incumpliendo lo establecido en los artículos anteriores, no son cargos públicos, están ilegalizados, no pueden participar en los Plenos. Toda esta movida es ilegal.”

Alkate jaunak (EAJ): “Contestando a Fernando decir que el espíritu de los presupuestos es también su flexibilidad. Las partidas que aquí se plantean son de servicios, son partidas imprevistas. En relación a la limpieza de fachadas, habreis podido comprobar que se han limpiado muchas fachadas, se ha incrementado el gasto y se ha solicitado la subvención correspondiente al Departamento de Interior. Respecto a la buena o mala gestión decir que uno de los modos de analizarla es comparar. En el Congreso de Diputados del que tu formas partes, también hay mucha improvisación. Por lo tanto la cuestión de buena o mala gestión es discutible. Con todo, agradezco vuestro sentido de la responsabilidad.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 11 (EAJ, ALKARBIDE, EB, PP)
Aurkako botoak: 0
Abstentzioak: 5 (PSE-EE/PSOE)

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin ondorengo erabakia hartu da:

Gehigarri kreditu modalitatean proposatutako kreditu-aldaketari hasierako onespina ematea. Jendaurreko epea igaro ondoren ez bada inolako alegaziorik aurkezten, behin betiko onartuta geldituko da.

4.- ZORREN GERORAPENERAKO ETA ZATIKAPENERAKO IRIZPIDEAK. 09-01-29an udalbatza osoak hartutako erabakiaren indarraldia luzatzea.

Alkatea jaunak, Hazienda Batzordeko proposamenaren berri eman du:

“**GAIA**.- Aldizkako epemuga ez duten zorren gerorapenerako eta zatikapenerako irizpideak.

2.009ko urtarrilaren 29an egindako bileran Udalbatzak ondorengo proposamena onartu zuen:

“Ekonomia eta finantza alorrean gaur egun bizi den krisialdi familietan eta enpresen eguneroko trafikoan likidezia falta eragiten ari da. Likidezia hori behar-beharrezkoa dugu gure sistema ekonomikoan dauden obligazioei, eta besteak beste, zerga arlokoei, aurre egin ahal izateko. Hau guztiarengatik eta udal ogasunari egin beharreko ordainketak erraztearen alde kontutan izanik egungo finantza krisialdiak sorturiko ezohiko inguruabarrak, egokia ikusi da aldizkako epemuga ez duten zorren gerorapen eta zatikapenerako irizpideak arautzea. Araudi hau ez da aplikagarria izango urbanizazio kuotak eta exekuzio subsidiarioen kasuetan, udal ogasunak aurreratzen dituen diru-kopuruak direnez.

Azaldutakoaren arabera eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak 64.5 artikuluan xedatutakoaren babespean, Hazienda Batzordeak Udalbatzari ondorengo akordio PROPOSAMENA egiten dio:

1.- Borondatezko epean dauden aipatutako zorren ordainketa geroratu eta zatikatu ahal izango da betebeharpekoaren egoera ekonomiko eta finantzarioak, organo eskudunaren iritziz, ordainketa egitea eragozten badio aldi baterako.

2.- Ordainketak Geroratzeko eta Zatikatzeke irizpide orokorrak ondorengo hauek izango dira:

a. 800 eurotik beherako zorrak / Para deudas no superiores a 800 euros:

- Gerorapena / Aplazamiento:

1. 100 eta 200 euro artean /De 100 a 200 euros..... 1 mes /hilabete 1
2. 201 eta 400 euro artean / De 201 a 400 euros..... 2 meses /2 hilabete
3. 401 eta 600 euro artean /De 401 a 600 euros..... 3 meses /3 hilabete
4. 601 eta 800 euro artean /De 601 a 800 euros.....4 meses /4 hilabete

- Zatikapena: ez dago aukerarik / Fraccionamiento: no cabe

b. 800 eurotik gorako zorrak / Para deudas superiores a 800 euros:

- Gerorapena / Aplazamiento:

- b.1. 800 eta 12.000 euro artean /Desde 800 a 12.000.....6 meses
- b.2. 12.001 eta 24.000 euro artean /Desde 12.001 a 24.000.....12 meses
- b.3. 24.001 eta 36.000 euro artean /Desde 24.001 a 36.000 18 meses
- b.4. 36.001 eurotik aurrera /A partir de los 36.001..... 24 meses

- Zatikapena /Fraccionamiento:

- b.5. 800 eta 12.000 euro artean /Desde 800 a 12.000.....6 plazos mensuales
- b.6. 12.001 eta 24.000 euro artean /Desde 12.001 a 24.000.....12 plazos mensuales
- b.7. 24.001 eta 36.000 euro artean /Desde 24.001 a 36.000 18 plazos mensuales
- b.8. 36.001 eurotik aurrera /A partir de los 36.001..... 24 plazos mensuales

- 800 eurotik gorako zorren kasuan, organo eskudunak, kasu bakoitza aztertu eta gero, gerorapen edo zatikapena onartzea erabakiko du. Organo eskudunak, zehaztuta ez dauden ordainketa epeak onartu ahal izango ditu, beti ere zehaztuta dagoen gehiengo epea gainditzen ez den bitartean.

3.- Borondatezko epea amaitu ondorengo 12 hilabete edo gehiagoko epeko gerorapen eta zatikapenak ez dute interesik sortuko.

4.- Berandutza eta zatikapena onartuz geroko lehen urtea igaro ondoren, zordundutako kopuruengatik diruaren interes legala sortuko da.

5.- Oro har, araudi honen arabera emandako gerorapen eta zatikapenetan ez da bermerik eskatuko.

6.- Epealdi bakar baten ordainketa betebeharra haustea nahikoa izango da zatikapen edo gerorapen emakida bertan behera gelditzeko eta epe exekutiboa hasteko. Horrela, geroratutako zorra, interesak eta dagokion gainkargua eskatuko dira.

7.- Araudi honetan xedatutako baldintzen arabera gerorapenak eta zatikapenak emateko Alkateari ematen zaio eskumena, Hazienda Batzordearen aurretiazko aldeko eta nahitaezko proposamenaren arabera.

8.- Araudi honen indarraldia onartua izaten den unean hasiko da eta 2009ko abenduaren 31n amaituko da. Onartzen diren irizpide hauek ez-ohiko moduan aplikatuko dira ordainketa epea etendako egoeran eta araudi hau indarrean sartzeko unean ebazteko zain dauden, gerorapen eskariak eskatuta dituztelako, zorren kasuan.”

Kontutan izanik hartutako erabakiaren arrazoiak irauten dutela oraindik ere, Hazienda Batzordeak Udalbatzari **proposatzen dio 2.010eko abenduaren 31ra arte akordioaren indarraldia luzatzea onartzea.**”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

5.- ALKATETZAREN EBAZPENAK. 2009ko urriaren 27tik 2009ko azaroaren 23ra bitarte emandako Alkatetzaren Ebazpenak.

Ezagutzera eman dira, Alkateak 2009ko urriaren 27tik 2009ko azaroaren 23ra bitarte emandako Ebazpenak.

PREMIAZKO PUNTUA

Alkate jaunak bizilagun batzuk eskatuta, premiazko puntu moduan, “GAZTE MUGIMENDUAREN KONTRAKO ESPAINIAR ESTATUAREN ERASO ERREPRESIBOARI” buruzko mozioa tratatzea proposatu du:

Premiazko puntu moduan tratatzea bozkatu da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 10 (EAJ, ALKARBIDE, EB)
Aurkako botoak: 6 (PSE-EE/PSOE, PP)
Abstentzioak: 0

Fernando Boada jaunak, PSE-EE/PSOeko bozeramaileak adierazi du beraiek ez duTela puntu horretan parte hartuko.

Gehiengo absolutuarekin proposamena onartu denez, Alkateak ondorengo mozioa irakurri du:

“GAZTE MUGIMENDUAREN KONTRAKO ESPAINIAR ESTATUAREN ERASO ERREPRESIBOAREN AURREAN MOZIOA:

Azaroaren 23an euskal gazte independentisten aurkako beste operazio poliziala eta judizial bat burutu zuten. Horren ondorioz, hegoaldeko lau herrialdetan Euskal Herriaren eskubideen defentsan aritu diren 34 gazte atxilotu zituzten. Poliziek 90 bat miaketa burutu zituzten: etxeak, gaztetxeak, elkarteak, peñen egoitzak, tabernak...

Atxiloketa hauek arrazoi politikoak direla medio burutzen dituzte, oinarrizko eskubideak urratuz eta berme juridikoak ukatuz. Kasu honetan operazio mediatiko-poliziala erabiliz. Bestalde, esan beharra dugu, makro-operazio hau testuinguru politiko zehatz batean egiten dela.

Izan ere, hilabete hauetan ezker abertzalea eztabaida sakonean murgildua dago. Euskal Herria aldaketa politikora eraman eta eskenatoki demokratiko bat eraikitzeko estrategia eraginkorra definitzeko lanean dabil, eta argi dago honi beldurra diola Estatu espainiarrak. Eztabaida hau eta ezker abertzalearen inizatiba politikoa zapuzteko Estatuak horrelako operazio errepresiboak burutuko zituela jakina zen, izan ere, errepresioa da Estatu espainiarrak duen tresna bakarra.

Azken aste hauetan burutu diren atxiloketak eta espetxeratzeko agindu horien atzean, estatuak ideia jakin batzuk dituzten herritarrei parte hartze politikorako eskubidea ukatzeko jarrera politikoa ezkututzen du. Bestalde, aldaketa politiko eta soziala eman ez dadin, estatuak aldaketa horren motorra gripatu nahi du: ezker abertzalea eszenatoki politikotik atera nahi du.

Historia luzea du gure herriak, eta luze, luzeegi, jo du gatazkak. Udal hau osatzen dugun guztiok ondo baino hobeto dakigu errepresioaren bidea ez dela bidea. Errepresioak ez dio gatazkari konponbidea ekarriko. Gatazka gainditzeko errepresioaren aldeko apustuak gainditu behar dira.

Euskal herritarroi hitza eta erabakia zor zaigu, gure etorkizuna askatasun osoz eta egitasmo politiko guztien artean erabakitzeko eskubidea errespetatzean datza konponbidea.

Hau guztia dela eta, honako mozio hau aurkezten dugu Beasaingo Udalbatzak eztabaida eta onar dezan:

1.- Udal honek bere elkartasun osoa helarazi nahi die egun hauetan atxiloturiko gazte guztiei eta euren senide zein lagunei. Halaber, inkomunikazio erregimenak, legeria antiterroristak eta dispertsioak eragiten duten eskubideen urraketa salatu nahi du.

2.- Udal honek euren jardun politiko eta sozialagatik espetxeratuak izan diren gazte independentista hauek berehala aska ditzatela exijitzen du.

3.- Udal honek gazte mugimendu, erakunde politiko, sozial eta komunikabideen aurka zabaldutako prozesuetan gutxieneko berme juridikorik ez duten ehundaka pertsonen bere elkartasuna helarazi nahi die.

4.- Udal honek espainiar estatuaren jardunbide antidemokratiko, autoritario eta errepresiboak salatzen du. Jardunbide horrekin irtenbide bakarra gatazka luzatzea delarik.

5.- Udal hau osatzen dugunok ez gaude egoera hau onartu eta etsitzeko prest. Horrexegatik, gatazka honi irtenbide demokratikoa bilatzeko gure konpromisoa berresten dugu.

6.- Udal honek atxilotuen askatasuna eskatzeko antolatuko diren elkarretaratzearekin bat egin du eta herritar guztiak deitzen ditu bertan parte hartzera.

7.- Azkenik, onartutakoaren berri herritarrei eta komunikabideei jakinaraztea erabakitzen dugu.”

Jarraian, Aitor Aldasoro jaunak, EAJ-PNV, ALKARBIDE eta EBk aurkeztutako Kontramozioaren testua irakurri du:

“Azaroaren 23an, 34 euskal gazte independentista, Grande Marlaska epailearen aginduz polizia nazionalak atxilotu ditu.

Polizia operazio hau, gure gizartearen gehiengoak defendatzen duen, giza eskubide guztien defentsa irmoan eta herri honen gehiengo demokratikoaren borondatearen errespetuan oinarrituko den konponbide elkarrizketatuaren aurkako estrategi politiko batetan kokatzen da.

Guzti honen aurrean, udal honek honakoa adierazten du;

1.- Udalak aldarrikatu nahi du pertsona, alderdi eta irizpide politiko guztien politikarako eskubidea; eskubide hori guztiontzat, baldintza berdinetan, Euskal Herriko gizarte eta politika mailako jardueratan aritzeko.

2.- Deia luzatu nahi dio Udalak Estatuko Gobernuari, berari dagozkionetan, eta premiazko erara, bertan behera utzi dezan Alderdi Politikoen Legea, 2002ko ekainaren 27an onartua, aipatu printzipioen aurka egiten baitu bete betean.

3.- Udalak, orobat, bere konpromisoa berresten du giza eskubide guztien defentsa irmoan eta gure herriak etorkizuna demokratikoki erabakitzeko duen eskubidean oinarrituko den normalkuntzaren alde.

4.- Lan politikoa egiteagatik herritarrak atxilotu eta espetxeratzea gaitzesten du, eta atxilotutako gazte horiek askatzea eskatzen du.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek ondorengo iritziak azaldu dituzte:

EB, ALKARBIDE eta EAJ taldeak kontramozioaren alde azaldu dira.

Julio Herreros, PPko zinegotziak adierazi du berak ez duela puntu honetan parte hartzen, bere ustetan premiazko puntua ez delako.

6.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean honelakoak aurkeztu dira:

FILTRACIONES PLAZA JOAN ITURRALDE

Fernando Boada jaunak (PSE-EE/PSOE): “Parece que durante las últimas lluvias en la plaza Joan Iturralde hubo problemas. Quisiera saber si se ha dado solución y la previsión existente sobre la posibilidad de que nuevamente haya filtraciones.”

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Fernando Boada jaunak (PSE-EE/PSOE): “Nos hemos enterado que se está desmantelando el departamento de cultura. Parece ser que el criterio es de que no haya administrativos. No lo entendemos. En su día quitamos los auxiliares administrativos y ahora parece que los administrativos. Si todos van a ser técnicos, sabemos las dificultades que hay cuando hay que hacer ciertas

gestiones. Un técnico va a decir que no le corresponden ciertas labores, como en su día pasó cuando hubo que cambiar un toner y nadie se responsabilizaba de ello y finalmente tuvo que venir un técnico de fuera a cambiarlo. Queríamos saber si el departamento de cultura se está reestructurando de tal manera que tiende a desaparecer y queda supeditado solamente al departamento de euskera.”

Aitor Aldasoro (EAJ) “En lo que a las filtraciones se refiere, es la primera noticia que tengo, ya que en urbanismo no se ha recibido ninguna queja al respecto. Lo que si se ha hecho es reponer baldosas que estaban rotas, pero eso entra dentro de la garantía que tiene la plaza.

Alkatea jaunak (EAJ): “En cultura, una persona estaba contratada para un tiempo parcial y en breve vence su contrato. El administrativo sigue, pero ahora tenemos que valernos del fomento de empleo. Antes teníamos un dinamizador que ahora es un técnico y tenemos que cubrir la plaza, debiendo decir para ello cuando y cómo. Tenemos el coordinador de euskera y cultura y también hemos creado una plaza de técnico de juventud. Nos falta completar esas plazas y hasta que eso sea una realidad, acudimos al fomento de empleo. No hay ningún desmantelamiento y no veas brujas donde no las hay. Yo creo que ha funcionado muy bien, pero cuando se contrata para trabajar durante un tiempo, cuando el plazo vence se le da de baja y así es como se ha hecho también en otros departamentos.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera goizeko hamarrak hoge gutxiagotan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.